

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Bete datuak hemen dituzun argibideak jarraituz:

0 atala administrazioak beteko du.

Zenbakizko datuak eskuinera doituko dira; hartara, hutsik utzi behar den laukitxorik izanez gero, ezkerrekoak utziko dira hutsik.

NANaren laukitxoa betetzeko adibidea:

									Z
--	--	--	--	--	--	--	--	--	---

LETRA

ESKATZAILEAREN DATUAK: adingabearen zaintza eta babes esleituta dituen eta adingabe hori zaintzeko eszedentzia hartu duen pertsona da -aita edo ama, hartzailea edo tutorea -.

- NAN/ANT: eskatzaileak espainiar herritartasuna badu, NAN-zenbakia idatzi beharko da, eta ez badu, ANT-zenbakia.
- Familia-helbidea: atal honetan adierazten den helbidea jakinarazpenak bidaltzeko ere erabiliko da.

BI GURASO DITUEN FAMILIEN KASUAN, EZKONTIDEAREN EDO BIKOTEKIDEAREN DATUAK: eszedentzia eskatzeko arrazoia den seme edo alabaren beste gurasoaren datuak dira: hau da, adingabearen beste aita edo ama, hartzaile edo tutorearenak.

FAMILIA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK: familia-unitatea gurasobakarrekkoa bada, adierazi.

Familia gurasobakartzat jotzen dira seme-alabak ekonomikoki eskatzailearen mendeko soilik diren familia-unitateak.

FAMILIA-UNITATEAN BIZI DIREN SEME-ALABEI BURUZKO DATUAK: familia-unitatean bizi diren seme-alaba guztien berri eman behar da. Seme-alabetako batek desgaitasunen bat badu eta eskumena duen erakundeak onartua badago, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu.

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK: eskatzaileak oharrak eta jakinarazpenak jasotzeko hautatu duen modua.

HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO FITXA: eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu behar den agiria da, eta dirulaguntza zer kontutan kobratu nahi den adierazteko balio du.

Kontua zer banku-erakundetan duzun, eskabideari erantsitako eruedetako bat aukeratu beharko duzu, zure banku-erakundea hauetakoren bat den edo ez kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOIA, CAIXABANK, BBVA edo BANCO SANTANDER, POPULAR, SABADEL edo CAJA RURAL DE NAVARRA.

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA

Eusko Jaurilaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean Zerbitzua) aurkez daiteke eskabidea.

ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoak daude:
01005 Vitoria-Gasteiz, Ramiro Maeztu kalea,10
48011 Bilbo, Kale Nagusia 85
20004 Donostia, Andia kalea 13

ZUZENEAN, Herritarrentzako Zerbitzuaren informazio-telefonoa: 012

Eskabidea elektronikoki ere aurkez daiteke: www.euskadi/familia

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehaztutako organoen aurrean ere aurkez daiteke.

- Zuzentzen zaion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen erregistro elektronikoa.
- Posta-bulegoetan, araudiz ezarritako eran.
- Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkarietan edo kontsuletxeetako bulegoetan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Jaiotzagatik eta seme-alabak zaintzeagatik gurasoek jasotzen dituzten kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko baliatu daiteke lan-eszedentzia, baldin eta agortu bada jaiotzagatik eta adingabea zaintzagatik Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan aitortuta dagoen kotizaziopeko prestazioa baliatzeko eskubidea.

Atal honetan erregulatutako diruz lagundu daitekeen jarduketa amaitu ondoren eskatu behar da laguntza.

BEHIN BAKARRIK AURKEZTU AHAL IZANGO DA

Eskatutako eszedentziaren bidez zaindu behar den semeak edo alabak URTEBETE ETA HIRU HILABETE betetzen dituzenean amaituko da eskabideak aurkezteko epea.

ADIBIDEA:

Demagun semea edo alaba 2020ko otsailean 1ean jaio dela.

Aitak agortu egiten du Gizarte Segurantzaren arloan aitortuta duen kotizaziopeko prestazioa.

Gerora, 2020ko irailaren 1etik 29ra lau asteko lan-eszedentzia eskatzen du jaiotzagatik eta seme-alabak zaintzeagatik dauden kotizaziopeko prestazioen aldiak parekatzeko.

Kasu honetan, beraz, 2021eko maiatzaren 1ean bukatuko da dirulaguntza hori jasotzeko eskabidea aurkezteko epea, semeak edo alabak urtebete eta hiru hilabete betetzen dituzenean.